

NERE APARTAMENTUAREN ERRETRATOA

11 rue du pressoir apt 3 Paris 75020

Bigarren solairua alde batean (sukaldea, egongela eta estudioa) eta lehen solairua beste aldean (logela)

1. ZATIA: BARRUALDEA

Jean-Luc Guionnet

#1 BARRUAN...

Nere apartamentuan egiten dudanaren eta bertan gertatzen denaren forma entzungarria erakusten eta editatzen duen 23 sekuentzien jarraipena. Egunez egun, urtez urte (1999az geroztik bizi naiz hemen).

Hona hemen sekuentzia ezberdinen deskribapen zehatza:

1

00:00 - 00:55

2014ko uda, mp3 grabagailu txikia

Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Travelling bat, igogailutik apartamentuan eta handik estudioan sartuz. Bertan, pieza honen zati bat entzun daiteke.

2

00:55 - 01:49

2014ko uda, bi mikrofono omni, egongelan

Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila altua

Egongelan leihoak parez pare irekita daude. Eguraldia haizetsu dago. Mikrofono bat leihoan kokatuta dago, bestea tokadiskoaren orratzetik oso hurbil. Tokadiskoa Stockhausenen "Procession" lanaren hasiera erreproduzitzen ari da, anplifikaziorik gabe.

3

01:48 - 03:11

2014ko uda, mp3 grabagailu txikia

Editatua, nahasi gabea, grabaketa maila erdian

Ordenagailuan konposizio honetan lanean, estudio-gela txikian.

4

03:11 - 07:06

2014ko uda, bi mikrofono kordioide boom pertika batean

Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Travelling-a, mikrofonoekin oinez gela batetik bestera. Hasieran, mikrofonoak konektatzerakoan sortzen den zarata teknikoa entzun daiteke. Amaieran, komuneko aireztapen sistema.

5

07:06 - 08:37

2005eko negua, kopia digitala (aipu zehatza)

Editatu gabe, nahasi gabe, jatorrizko grabaketa maila

Eric La Casaren "AIR/RATIO" (cd sirr 0026) piezaren zatia. Zati hau apartamentu hontako komuneko aireztapen sistemaren irteeran grabatu zuen.

6

08:37 - 09:04

2014ko uda, kontaktu mikrofonoak

Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Mikrofonoak zuzenean ordenagailuan ezarriz, pieza honekin batera lantzen ari nintzen beste soinu-pieza baten grabaketa zati txikia entzun daiteke. Pieza berri honek "l'autre jour" du izena. Ahots sintetiko batek aspaldian idatzi nuen testu bat irakurtzen du. Idatzia etxe bateko gela batean galduta, bakarrik, dagoen gorputz bati buruzkoa da. Arrazoiren batengatik, grabaketa maila igotzerakoan, kontaktu mikrofonoak halako zarata erritmiko bat jasotzen du grabagailutik. Ahots sintetikoaren atzean entzun daiteke.

7

09:04 - 10:36

2014ko uda, bi mikrofono kardioide euskarri batean, egongelan
Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Apartamentuan zehar ibiltzen. Etxean maiz jotzen dudana shiftelia izeneko musika-tresna albaniarrekin musika egiten.

8

10:36 - 12:19

2014ko uda, bi mikrofono omni, egongelan
Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila altua

Bi mikrofonoak tokadiskoaren orratzetik oso hurbil jarrita, besteen artean Arthur Blythe (as) eta Abdul Wadul (cello) musikarien Bush Baby entzun daiteke. Hasieran anplifikaziorik gabe, baina progresiboki anplifikatuz.

9

12:19 - 12:38

2014ko uda, mp3 grabagailu txikia
Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Etxean jotzea gustoko dudana saxofoi altuaren soinuaren zati txiki bat.

10

12:38 - 22:31

2013ko negua, bi mikrofono omni, egongelan
Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila altua

Mikrofono bat hormaren kontra dago, parez pare. Bestea, leihoaren kontra. Biak, bata bestearekiko paraleloan eta lurretik hurbil, zoruaren ukitu gabe. Sesta ordua da. 45 minutuko grabaketa luzearen zatia.

11

22:31 - 22:57

2014ko uda, bi mikrofono kardioide boom pertika batean
Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Aireztapen sistema komunean (aurreko bera).

12

22:54 - 23:57

2014ko uda, mikrofono kardioide bat euskarri baten gainean, soinua ordenagailutik
Editatu gabe, nahasia, grabaketa maila erdian

"L'autre jour" eta ordenagailuak sortutako ahots sintetikoa berriz. Hasieran, 11. sekuentziarekin nahasten da eta gero etxeko garajeko sabaian erortzen diren ur tanten soinuekin (Kanpoaldea izena duen pieza honen bigarren ataleko amaieraren zatia) bat egiten du.

13

23:57 - 26:53

2014ko urria, bi mikrofono omni, bat sukaldean, bestea egongelan
Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Lotus Edde Khourirekin eta Pascal Battusekin hizketan, 2014ko udan egindako bidaiari, zehazki Arantzazu eta Paris arteko ibilbideari buruz. Panorama moztzen da, ezker eskuin, bi gela arteko akustika erakusteko. Egongelako leihoak parez pare irekita daude.

14

24:27 - 25:07

2014ko uda, Kontaktu mikrofonoak tokadiskoaren orratzean eta bozgorailuan ezarrita
Editatuta, nahasi gabe, grabaketa maila altua

"In St Johann" entzuten, The Ames Room taldearekin Gaffer record disketxearentzako argitaratu azken binilozko diskoa entzuten. Mikrofonoak tokadiskoaren orratzean eta bozgorailuan ezarrita daude.

15

26:53 - 30:54

2014ko uda, bi mikrofono kardiode euskarri gainean, egongelan
Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Ni apartamentuan zehar, berriz shiftelia jotzen.

16

30:54 - 31:31

2014ko uda, mp3 grabagailu txikia
Editatuta, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Berriz ni, estudio txikian, konposizio honen gainean lanean.

17

31:31 - 32:13

2014ko uda, bi mikrofono kardiode pertika batean
Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Egongelatik sukaldera oinez. Irrati zaharra pizten dut, eta France Culture entzun daiteke. Anne Alvaro ageri da bere aktorea lanari buruz hizketan eta kazetariak egiten dizkion galdera txatxuei erantzunez. Ahotsaren hasiera fade-in naturala da: irrati zaharrak, pizten den aldioro, segundo batzuk behar ditu berotzeko.

18

32:13 - 33:08

2011ko negua, bi mikrofono omni logelan, hormen kontra
Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila altua

Egun haizetsua. Gelan nago, isilik, grabaketa maila oso altua da. Arazo teknikoa bat gertatzen da 32:48 puntuan, seguruaski hezetasunak eragindako. Bizilagunak entzun daitezke.

19

33:08 - 33:38

2014ko uda, bi mikrofono kardiode pertika gainean
Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Anne Alvaro berriz irratian, sukaldean.

20

33:48 - 35:46

2009ko udaberria, mp3 grabagailu txikia
Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Logelako leihoan, nerabe batzuk musika entzuten ari dira beraien mp3 erreproduktoreekin. Lagunei buruz hizketan ari dira.

21

35:46 - 40:43,

2006ko uztaillaren 9a, bi mikrofono omni

Editatu gabe, nahasi gabe, grabaketa maila erdian

Mikrofono bat egongelako leiho irekian kokatuta dago, bestea, garai batean nere logela baina gaur egun nere langela (estudioa) den gelako leiho irekian dago. Munduko futbol txapelketa telebista bidez ikusten ari den jendearen zurrumurra entzun daiteke. Gol bat (edo beste zeozer) gertatzen denean kalean zehar oihuka eta laisterka hasten dira.

22

40:42 - 41:41

2013ko urtarrila

Editatu gabe, nahasia, bi grabaketa maila oso ezberdin

Grabaketak, tresna zahar batekin egindako soinu elektroniko bat eta egongelan saxo altoarekin egindako soinu bana jasotzen ditu. Nahasketa honen bidez, bizilagunak imajinatu nahi ditut: eraikinaren beste puntan belarria horman jarriz, musika nola egiten dudan entzuten. Aldiberean, beraien gorputzaren odolaren presioa, hormetatik bidaiatzen duten ur, gas eta bestelako sistemen zaratak eta urrunean, saxofoiaren soinua entzuten dutela pentsatu nahi dut.

23

40:41 - 42:22

2014ko uda, mp3 grabagailu txikia

Apartamentutik irtetzen: Estudiotik atera naiz, Éric La Casaren pieza altabozetatik entzuten den bitartean, handik igogailura, ate nagusitik.